



# Iosu Gangoiti

Hezkuntza ordezkaria **Araban**

Delegado de Educación en **Alava**

## "La Formación Profesional es una apuesta estratégica, que necesita del apoyo y colaboración de todos"



## "Lanbide Heziketa apustu estrategikoa da, guztion babesa eta lankidetza behar duena"

**Bartzelonako Unibertsitate Zentralean Filosofian eta Hezkuntza Zientzietan lizentziatua, Iosu Gangoiti Gasteizko Aranzabela Ikastolako zuzendari izan zen. Ondoren, Berritzeguneetan heziketa bereziko beharren aholkuari izan zen. 1995etik Arabako Hezkuntza ordezkari lanetan dabil. Lurraldeko zuzendaritzan daramatzan hamar urte baino gehiagok esperientziaren ahots bihurtu dute...**

**Licenciado en Filosofía y Ciencias de la Educación por la Universidad Central de Barcelona, Iosu Gangoiti fue director de la Ikastola Aranzabela de Vitoria, y más tarde asesor de necesidades de educación especiales en los Berritxegunes. Desde 1995 ejerce como delegado de Educación en Alava. Más de diez años al frente de la dirección territorial le convierten en la voz de la experiencia...**

**"Euskalduntze prozesuan benetako esfortzua ari gara egiten"**

**"Estamos haciendo un importante esfuerzo por la euskaldunización"**

**– Hiru lurraldeetako ordezkari beteranoena izanik, zure ordezkaritzan etapa honetan zehar egindako zein lorpen nabarmenduko zenituzke?**

– Nahiko harro senti gaitezke duela hamar urte genuen egoerarekin alderatuz gero. Finkatutako Lanbide Heziketa dugu, beste lurraldeentzat erreferentzia dena. Funtsezko aldaketa izan dugu azken hamarkadan eta orain Lanbide Heziketaz dugun kontzeptua sistema berritzaileagoetan, malguagoetan, arinagoetan eta modernoagoetan oinarrituta dago. Gure LHk trebakuntza sendoa eskaintzen du, egitura malguarekin, araututako nahiz arautu gabeko irakaskuntzan dauden bide guztiak hartzeko aukera eskaintzen du, eta hezkuntza sistemaren beharrei erantzuteko gai da.

**– Como el delegado más veterano de los tres territorios, ¿qué logros destacaría en su delegación durante esta etapa?**

– Tenemos que sentirnos razonablemente satisfechos por la situación en la que estamos respecto a hace diez años. Contamos con una Formación Profesional consolidada, siendo referente para otros territorios. Hemos vivido un cambio radical en esta última década y ahora gozamos de un concepto de la Formación Profesional basado en sistemas más innovadores, flexibles, ágiles y modernos. Nuestra FP proporciona una sólida formación, con una estructura flexible, que posibilita integrar todas las vías de formación existentes tanto en la reglada como en la no reglada, y dar una respuesta a las necesidades del sistema educativo.

**–Zein dira Arabako Lanbide Heziketaren bereizgarriak eta zer nolako bilakaera izan dute?**

–Ikastetxe guztiak ari dira kalitate ziurtagiria lortzen. 2005ean 3 Zilarrezko "Q" sinatu ditugu eta esfortzu garrantzitsua ari gara egiten euskalduntzea bultzatzeko. Gainera, nabarmen handiagotu dugu hasierako trebakuntza, adin horietako ikasle kopurua jaitsi egin den arren; azken urte hauetan %45etik %48,8ra pasatu gara Lanbide Heziketara doazen matrikula kopuruan. Horrez gain, lan munduak eskatzen duen ildotik eskaintza ugaritzeko eta malgutzeko lanean ari gara eta datorren ikasturtetik aurrera eskaintza zabalduko dugu Zuraren eta Altzarien familiarekin.

**–Ikastetxeen euskalduntzean nola egin duzu aurrera?**

– Esfortzu handia ari gara egiten Araban Lanbide Heziketa euskalduntzeko. 2002an bi titulu eskaintzetik datorren urtean 16 eskaintzera pasatuko gara, baina arlo horretan esfortzua egiten jarraitu behar dugu.

**–Zein da zure balorazioa IKASLANen lanari dagokionez?**

– Guztiz positiboa. Lankidetza lan oro beharrezkoa da. Beraiek zuzenean dakite ikastetxeen egoera zein den eta balio handiko iradokizunak eta informazioa eskaintzen digute. Lankidetza horren ondorioz emaitza oso positiboak lortu ditugu.

**–Zein jarduera lerro planteatu dira datorren urteetarako Lurraldeko Hezkuntza Ordezkaritzatik LHri dagokionez?**

– Guretzat lehentasunezkoa da irakaskuntza elebidunerako sarbidea ahalbidetzea; gabezia garrantzitsua dago eta hori konpondu beharra dugu. Horrez gain, hezkuntza garaian amaitzen ez den, baizik eta bizitza osoan jarraitzen duen irakaskuntza kultura sustatu nahi dugu, etengabeko ikaskuntza alderako esfortzua egin nahi dugu. Ikastetxeetako instalazioen hobekuntzari dagokionez, egunean egotea da beste erronka bat; 2005etik 2007rako epean 10 milioi euroko inbertsioak ari gara egiten tailer berrietan, ikastetxeak zabaltzen, eta abarretan. Tradizioz gizonezkoenak izan diren sektoreetan emakumea sartu nahian ere bagabiltza, batez ere automobilgintzaren gisako tituluetan, emakumeen %2 besterik ez baitute osatzen. Gure helburua lurraldeko eskaintza publikoa zabaltzea eta ugaritzea da, batez ere gabeziak antzeman daitezkeen eremuetan, eta behar berrietara egokitzea.

**–Zure ustez aurrera egin al da irakasleen egonkortasunari eta kudeaketa autonomiari dagokionez? Nola baloratu da esleipena lurralde bakar batean zentralizatuta egotea?**

– Esleipen zentralizatuari dagokionez, irakasleek modu positiboan baloratu dute, eta uste dut ildo horretatik jarraitu behar dugula, lurraldeen arteko lankidetza oso positiboa izan baitzen. Hezkuntza Sailaren helburuetako bat ikastetxeak berak beren kudeaketaren motor izan daitezen lan egitea da. Lehentasunezko neurrietako bat da. Irakasleen egonkortasunari dagokionez, berriz, Araban ez dugu langileen birkokapen arazorik izan.

**–Zein mezu igorriko zenuke Lanbide Heziketaren etorkizunari begira?**

– Lanbide Heziketa guztion babesa eta lankidetza behar duen apustu estrategikoa da, motorra Hezkuntza Saila izanik. Ezinbestekoa da baita ere hizkuntzen ezagutza ona sustatzea, kalitatearen aldeko apustuan ikastetxeen alde egiten jarraitzea, gure lanbide heziketa inguruan eta Europan guztiz sartzen saiatzea, eta niretzat funtsezko arloa da Lanbide Heziketaren planetan lanbide heziketako hasierako programak sartzea, edo lege berriarekin hasierako kualifikazio programak izango direnak; derrigorrezko hezkuntzan graduatu titulua lortu ez duten ikasleei zuzendutako programa guztiak ez dute lortu graduatu titulua, eta azken urteetan erabat ahaztuta izan ditugula uste dut.

**"Gure lanbide heziketa gure inguruan eta Europan erabat sartzen saiatu behar dugu"**

**"Tenemos que intentar integrar plenamente nuestra formación profesional en nuestro entorno y en Europa"**



**–¿Cuáles son las peculiaridades de la Formación Profesional en Alava y cuál ha sido su evolución?**

– Todos los centros están certificándose en calidad. Durante el 2005 hemos firmado 3 "Q" de Plata, y se está haciendo un esfuerzo muy importante por impulsar la euskaldunización. Además hemos incrementado de forma importante la formación inicial, a pesar del descenso del número de alumnos en estas edades; en estos últimos cursos hemos pasado de un 45% a un 48,8% en el porcentaje matrículas que van a Formación Profesional. También estamos trabajando para diversificar y flexibilizar la oferta en la línea que requiere el mundo laboral y a partir del curso que viene ampliamos la oferta, con la familia de Madera y Mueble.

**–¿Cómo han avanzado en la euskaldunización de los centros?**

– Estamos haciendo un importante esfuerzo por la euskaldunización de la Formación Profesional en Alava. Hemos pasado de ofertar dos títulos en 2002 a 16 en el próximo curso, pero hay que seguir esforzándose en este sentido.

**–¿Cuál es su valoración sobre el trabajo de IKASLAN?**

– Totalmente positiva. Todo lo que sea el trabajo en colaboración es necesario. Ellos conocen de primera mano la situación de los centros y nos transmiten sugerencias e información de gran valor. Fruto de esta colaboración hemos obtenido resultados muy positivos.

**–¿Qué líneas de actuación se plantean en los próximos años desde la Delegación Territorial de Educación en cuanto a la FP?**

– Para nosotros es prioritario posibilitar el acceso a la enseñanza bilingüe; hay un déficit importante que tenemos que corregir. También queremos inculcar la cultura del aprendizaje como algo que no acaba en la etapa educativa sino que continúa toda la vida, hacer un esfuerzo hacia el aprendizaje permanente. Otro reto es estar al día en cuanto a la mejora de las instalaciones en los centros; en el periodo de 2005 a 2007 estamos haciendo unas inversiones de 10 millones de euros en nuevos talleres, ampliaciones de centros, etc. Queremos además propiciar una mayor incorporación de las mujeres en sectores que tradicionalmente han sido masculinos, sobre todo en los títulos como automoción, donde sólo hay un 2% de mujeres. Otro de nuestros objetivos es intentar ampliar y diversificar la oferta pública del territorio en aquellas zonas donde se puedan detectar carencias, y adecuarnos a las nuevas necesidades.

**–¿Cree que se ha avanzado en cuanto a la estabilidad del profesorado y la autonomía de gestión? ¿Cómo se ha valorado el hecho de hacer la adjudicación centralizada en un único territorio?**

– En cuanto a la adjudicación centralizada, los profesores lo han valorado muy positivamente, y creo que hay que seguir en esa dinámica, porque la colaboración que se dio entre territorios fue muy positiva. Uno de los objetivos del Departamento de Educación es trabajar para que los propios centros sean motores de su gestión. Es una de las medidas prioritarias. En lo referente a la estabilidad del profesorado, no hemos tenido en Alava problemas de reubicación de personal.

**–¿Qué mensaje lanzaría de cara al futuro de la Formación Profesional?**

– La Formación Profesional es una apuesta estratégica que necesita del apoyo y colaboración de todos, siendo el Departamento de Educación el motor. También es imprescindible potenciar el dominio de las lenguas, seguir apostando y apoyando a los centros en su apuesta por la calidad, intentar integrar plenamente nuestra formación profesional en nuestro entorno y en Europa, y para mí un aspecto fundamental es la necesidad de incorporar dentro de los planes de Formación Profesional a los actuales programas de iniciación profesional, o lo que con la nueva ley serán los programas de cualificación inicial; todos los programas orientados al alumno que no ha obtenido el título de graduado en educación obligatoria, y que en los últimos años creo que han sido los grandes olvidados.

# Andoni Anasagasti,

## "Eremu geografikoan barneratuta dagoen Lanbide Heziketa nahi dugu"

Hezkuntza ordezkaria **Bizkaian**

Delegado de Educación en **Bizkaia**

## "Queremos una Formación Profesional integrada en su ámbito geográfico"



**Desde hace cuatro meses, Andoni Anasagasti dirige la Delegación de Educación en Bizkaia. Ha dado clases como profesor de Ciencias Naturales durante casi treinta años, participando en las juntas directivas de los centros. Antes de asumir la Delegación ha pasado también por la Inspección Educativa, por lo que aporta a su puesto un gran conocimiento del funcionamiento del sistema educativo en su territorio.**

**Duela lau hilabetetatik, Andoni Anasagastik zuzentzen du Bizkaiko Hezkuntza Ordezkaritza. Anasagastik Natur Zientzietako irakasle gisa eskolak eman ditu ia hogeita hamar urtez eta zentroetako zuzendaritza batzordeetan parte hartu izan du. Ordezkaritza bere egin aurretik, Hezkuntza Ikuskaritzan ere izan zen; hori dela eta, bere postuari lurralde horretako hezkuntza sistemaren funtzionamenduaren gaineko ezagutza handia eskaintzen dio.**

**– Zein diagnostiko egingo zenuke Bizkaiko Lanbide Heziketaren gainean?**

– Lanbide Heziketa enpresarekin batera bizi da gure egoeran; kalitatekoa eta oso baloratua den erantzuna eskaintzen du eta enpresekin harreman zuzena eta etengabekoa du, trebakuntzako helburuak lan munduak eta gizarteak eskaintzen dutenera egokituz, indarrean dagoen hezkuntza sistemarekin behar bezala integratuta, eta derrigorrezkoaren ondorengo hezkuntzan toki garrantzitsua betez.

**–Nola bilakatu da Lanbide Heziketa zure lurraldean? Zein ezaugarri ditu LHk Bizkaian?**

– Lanbide Heziketako ikasketek eta ikastetxeek oso modu positiboan bilakatzen jakin dute, dagokien gizarte onespena lortuz. Ikastetxeak beren ingurura zabaldu dira, dauden eremuko erreferentzia bihurtuz. Euskalduntze prozesuak tokiko gizartearen pausoak jarraitzen ditu, eta aurten euskaraz hirurogei trebakuntza ziklo eskaintzen ditugu dagoeneko; hori dela eta, iazko ikasturtearekiko %16,67ko hazkuntza izan duela esan dezakegu. Bizkaiak, gainera, ziklo mistoen ekimena sustatu du (euskaraz eta gaztelaniaz), eta

**"Lurralde osoan eskaintza publiko elebiduna sustatzeko lan egiten dugu"**

**"Trabajamos para impulsar una oferta pública bilingüe en todo el territorio"**

**– ¿Qué diagnóstico haría de la Formación Profesional en Bizkaia?**

– La Formación Profesional convive en nuestra realidad con la empresa, a la que ofrece una respuesta de calidad muy valorada, y con la que mantiene un contacto directo y constante, adecuando los objetivos de formación a lo demandado por el mundo laboral y la sociedad, en perfecta integración con el sistema educativo vigente, y ocupando una parcela importante de la educación postobligatoria.

**–¿Cómo ha evolucionado la Formación Profesional en su territorio? ¿Qué rasgos tiene la FP en Bizkaia?**

– Los estudios de Formación Profesional y los centros que los imparten han sabido evolucionar de manera muy positiva, consiguiendo el reconocimiento social que les corresponde. Los centros se han abierto a su entorno, convirtiéndose en referente de las zonas donde se ubican. El proceso de euskaldunización va siguiendo los pasos de la sociedad en la que se inserta, y este año ya tenemos una oferta de setenta ciclos formativos en euskera, lo que representa un incremento del 16,67% respecto al curso anterior. Bizkaia ha impulsado además la iniciativa de los

horrek lurraldeko eremu berrietan Lanbide Heziketako euskarazko irakaskuntza publikoaren hazkuntza ahalbidetu du. Bizkaiak industria-ehun oso kontzentratua du, Bilbo handian biztanleria dentsitate handiarekin. LH ikastetxe gehienak eremu horietan kokatu dira, eta lanbide batzuek tradizio handia dute. Horregatik sustatu nahi dugu LH hain industrializatuta ez dauden eremuetan. Bestalde, ikastetxeek kalitatearen alde egin dute, maila guztietan onespen handiak lortuz eta kalitatea hobetzeko eta sustatzeko ekintzetan parte hartuz.

**–Zein da zure balorazioa IKASLANen gainean, egiten duen lanari eta ordezkatzen duenari dagokionez?**

– IKASLANek ikastetxeen arteko harremana ahalbidetu du, hezkuntza administrazioei beharrak transmitituz; beraz, ikastetxeen errealitatea ezagutzeko horiek izatea ezinbestekoa da. Informazio oso interesgarria eskaintzen du, eta horrek Lanbide Heziketa hobetzea ahalbidetzen du.

**– Bizkaiko LH ikastetxeak egokituta al daude gaur egungo lan merkaturako eta ikasleen eskaeretarako? Oraindik egiteko lanik ba al dago?**

– Formazioa etengabe egokitzen ari da. Gaur egun, bi proiektu nagusi ditugu Bizkaian. Irailean Zornotzako Urritxe hasiko da eta Miribilla, Bilboko erreferentziazko ikastetxea, proiektuan dago, eremuko eskaintza osatzeko ziklo kopuru handiarekin. Gainera, eskualdekako azterketak egiten ari gara, eskaera potentzialen eskaintza egokitu nahian, batez ere Lanbide Heziketako eskaintzan gabezia antzeman dugun eremuetan. Bizkaian 21 familia profesional eskaintzen dituzte (bakarra falta da, Beira eta Zeramika). Goi mailako 52 titulu eta erdi mailako 33 ditugu.

**–Zein ekintza ildo planteatzen dira Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzatik Lanbide Heziketari dagokionez?**

– Aipatutakoaz gain, lurralde osoan eskaintza publiko elebiduna sustatzeko lan egiten dugu. Ikastetxeek eta Ordezkaritzak enpresekin dituzten harremanak ere indartu nahi ditugu, ekoizpen-ehun osoa, eta administrazioak, ikasketen osagarri gisa Lan Zentroen Prestakuntza ugarituz. Irakasleen trebakuntzaren alde egiten ere jarraitzen dugu, lurralde eskuduntzen barruan, plan orokorrak nahiz sortzen diren ekimen partikularrak sustatuz, horretarako behar diren baliabideak eskainiz.

**–Zein iritzi duzu irakasleen egonkortasunari eta kudeaketaren autonomiari buruz?**

– Legeak behartzen gaitu zentro integratuak sortzera, ezaugarri zehatzekin, eta horrek eragiten du eskola mapa aldatzea eta, ondorioz, irakasleak berriz kokatu behar izaten dira. Zentro integratu berriak sortzeari esker, horien esku uzten dira lehen administrazioarenak ziren ahalmen asko, kudeaketa egokiagoa egin dezaten.

**–Nola baloratzen duzu lurralde bakarrean, kasu honetan zurean, zentralizatutako esleipena egitea?**

–Hasiera izan da, etorkizunerako, egindako akatsetatik eta ondo egindakoetatik ikasi beharko dugu.

**–Zein mezu igorriko zenuke Lanbide Heziketako etorkizunari begira?**

– Eremu geografikoan sartutako Lanbide Heziketa nahi dugu, eskaintza osoa eta kalitatekoa eskainiko duena trebakuntza zikloetan. Etengabe eguneratutako eskaintza, Kalitatea eta eragingarritasuna bermatuko duen eskaintza, enpresa munduak eskatutakoarekin harreman zuzenean, gure titulatuen laneratzea lortzeko asmoz. Irudi sozial indartua lortu behar dugu, XXI. mendeko errealitateari egokitzen ez zaizkion antolaketa egiturak eta estereotipoak gainditUZ, derrigorrezkoaren ondorengo irakaskuntzan Lanbide Heziketan parte hartze ehunekoa hazi nahian.

**"Ikasketen osagarri gisa, Lan Zentroetan Prestakuntza handiagotu behar da"**



**"Hay que incrementar la Formación en los Centros de Trabajo como complemento a los estudios"**

ciclos mixtos (euskera y castellano), lo que está posibilitando el despegue de la enseñanza pública de Formación Profesional en euskera en nuevas zonas del territorio. Bizkaia tiene un tejido industrial muy concentrado, con gran densidad de población en el gran Bilbao. La mayoría de los centros de FP se han ubicado en estas zonas, con gran tradición de algunas profesiones. Por eso queremos potenciar la FP en lugares no tan industrializados. Por otro lado, los centros han apostado por la calidad, obteniendo reconocimientos importantes a todos los niveles y participando en acciones de promoción y mejora de calidad.

**–¿Cuál es su valoración sobre IKASLAN, el trabajo que realiza y lo que representa?**

– IKASLAN ha permitido una relación entre centros, pudiendo transmitir necesidades a las administraciones educativas, por lo que su existencia es inestimable para conocer la realidad de los centros. Aporta información muy interesante que permite mejorar la Formación Profesional.

**– Los centros de FP en Bizkaia, ¿están adecuados a las necesidades del mercado laboral y a las demandas de los alumnos? ¿Queda trabajo por hacer?**

– Se está adecuando la formación de manera constante. Actualmente tenemos dos proyectos estrella en Bizkaia. En septiembre comenzará el de Urritxe de Amorebieta, y Miribilla, el centro de referencia de Bilbao, está en proyecto, con gran cantidad de ciclos para completar la oferta de la zona. Además, estamos realizando estudios por comarcas, intentando adecuar la oferta a las demandas potenciales, sobre todo en aquellas zonas en las que hemos detectado un déficit en oferta de Formación Profesional. En Bizkaia se dan 21 familias profesionales (solo falta una, Vidrio y Cerámica). Tenemos 52 títulos de grado superior y 33 de grado medio.

**–¿Qué líneas de actuación se plantean desde la Delegación Territorial de Educación en cuanto a la Formación Profesional?**

– Además de lo mencionado, trabajamos para impulsar una oferta pública bilingüe en todo el territorio. Queremos también fortalecer los contactos de los centros y la Delegación con las empresas, el conjunto del tejido productivo, y las administraciones, incrementando la Formación en los Centros de Trabajo como complemento a los estudios. Continuamos también con la apuesta por la formación del profesorado, impulsando, dentro de las competencias territoriales, tanto los planes generales como las iniciativas particulares que se van originando, aportando los recursos para ellos necesarios.

**–¿Qué opina en cuanto a la estabilidad del profesorado y la autonomía de gestión?**

– La legislación nos obliga a crear centros integrados, con unas características determinadas, lo que implica una modificación del mapa escolar, y en consecuencia reubicaciones del profesorado. Gracias a la creación de estos centros integrados se está dejando en manos de los mismos muchas potestades que antes eran de la administración, para que realicen una gestión más adecuada.

**–¿Cómo valora el hecho de hacer la adjudicación centralizada en un único territorio, en este caso el suyo?**

– Ha sido un comienzo, con los errores y con los aciertos de los que aprender para el futuro.

**–¿Qué mensaje lanzaría de cara al futuro de la Formación Profesional?**

– Queremos una Formación Profesional integrada en su ámbito geográfico, que ofrezca una oferta completa y de calidad de ciclos formativos. Una oferta permanentemente actualizada, que garantice calidad y eficiencia, en directa relación con lo demandado por el mundo empresarial, con el objeto de lograr la inserción laboral de nuestros titulados. Hay que conseguir una imagen social fortalecida, superando esterotipos y estructuras organizativas que no se adecuan a la realidad del siglo XXI, tratando de incrementar el porcentaje de participación en Formación Profesional en la enseñanza postobligatoria.

# Arantza Laca

Hezkuntza ordezkaria **Gipuzkoan**

Delegada de Educación en **Gipuzkoa**

## "La Formación Profesional en Gipuzkoa es dinámica, muy ligada al mundo empresarial"

## "Lanbide Heziketa dinamikoa da Gipuzkoan, enpresen munduarekin lotura zuzena duena"



**Arantza Laca urtarrilean iritsi zen Hezkuntzako Lurralde mailako Ordezkaritzaren Zuzendaritzara Gipuzkoan, ikasgeletatik zuzenean. Bigarren mailako heziketan 23 urte igaro ditu irakasle moduan, eta horietatik 12 zuzendaritzako funtzioak betetzen. Horrek guztiak, beraz, hezkuntza sistema barne-barnetik ezagutzea bermatzen dio. Orain, aldiz, esperientzia hori hezkuntzaren mundura Administraziotik aplikatzeko erronkari ekingo dio.**

**Arantza Laca llegó el pasado mes de enero a la Dirección de la Delegación Territorial de Educación en Gipuzkoa directamente desde las aulas. 23 años de profesora en secundaria, de los cuales ha pasado 12 en funciones directivas, garantizan su conocimiento del sistema educativo desde dentro. Ahora asume el reto de aplicar esa experiencia al mundo de la educación desde la Administración.**

**– Zein da IKASLANen eta hark egiten duen lanaren gainean duzun ezagutza?**

– 1998. urtean, Zarauzko Lizardi Institutuko zuzendaritzaren ardura hartu nuen eta IKASLAN osatu zuten Lanbide Heziketako zentroetako zuzendari taldea ezagutu nuen han. Nik, bestalde, une hartan bigarren hezkuntzako zuzendarien elkartea sortzen ere parte hartu nuen; IKASLAN eta haren lana, beraz, hasiera-hasieratik ezagutzen ditudala esan dezaket. Institutuan zuzendari gisa igaro nuen lehen urteak bigarren hezkuntzako institutuetan prestakuntzako zikloak ezarri zituen garaiarekin bat egin zuen. LOGSE sartu arte, LHko zentro batzuk eta Batxilergoko beste batzuk zeuden, baina, handik aurrera, konbinazio mistoak egiten hasi ziren.

**–Zure ustez zein da gainerako lurraldeetakoetatik bereizten duen Gipuzkoako Lanbide Heziketaren egoera?**

– Gipuzkoan Lanbide Heziketaren aldeko tradizio handia dago eta oso mundu dinamikoa da. Enpresen munduarekin

**"Irakasleek aurrerapen teknologikoaren goiko mailan egon behar dute"**

**"El profesorado debe estar en la punta del avance tecnológico"**

**– ¿Cuál es su conocimiento sobre IKASLAN y el trabajo que realiza?**

– En 1998 asumí la dirección del Instituto Lizardi de Zarautz y desde entonces conocí que un grupo de directores de centros de Formación Profesional habían formado IKASLAN. Yo, por mi parte, participé también en ese momento en la fundación de una asociación de directores de secundaria; conozco IKASLAN y su trabajo desde el principio. Mi primer año de directora de instituto coincidió con la implantación de ciclos formativos en institutos de secundaria. Hasta la LOGSE existían unos centros de FP y otros de Bachillerato, pero a partir ese momento se realizaron combinaciones mixtas.

**–¿Qué piensa que singulariza la situación de la Formación Profesional en Gipuzkoa respecto de los demás territorios?**

– Existe una gran tradición por la Formación Profesional en Gipuzkoa y es un mundo muy dinámico. Son centros muy

lotura handia duten zentroak dira; hau da, enpresarekin harreman handiak dituztenak. Horregatik lortu dugu proposatu zituzten ildo estrategiko guztiak garatzea lortzea.

**–Gipuzkoako zentroak ikasleen eta lan merkatuaren beharretara egokitzen al dira?**

–Lanbide Heziketak etengabe egokitu behar du horren aldakorra den lan merkatura. Zentroek ahalegin handia egin behar dute merkatuaren egoera ezagutzeko, beharretara egokitzeko eta egunean egoteko. Ondo ari dira lanean, baina zaila da, egokitzeko ahalegin guztiak zentroen baitan ere aldaketa ugari eskatzen baitu. Zikloa aldatuz gero, familia profesional beraren baitan, irakaslearen profila ere aldatu egin daiteke. Irakasleak ere etengabe trebatu behar dira, berrikuntza horiek dagoeneko ezarrita dauden enpresetan lan egingo duten ikasleak prestatzen ari baitira. Irakasleek aurrerapen teknologikoaren goiko mailan egon behar dute. Zentroen zuzendaritzek ere dinamikoak izan behar dute eta azalduko diren beharrak, ziklo motak eta irakasle profil motak aurrez ikusi behar dituzte.

**–Zein jarduera ildo landu dituzte Gipuzkoako Hezkuntzaren Lurralde mailako Ordezkaritzatik datorren urteotarako Lanbide Heziketaren inguruan?**

– Aurrekoarekin lotuta, Ordezkaritzak aurrean duen zailtasunik handiena zentroetako irakasleen hornikuntzarekin lotura duen malgutasun horri erantzuna ematea da, zenbait ziklotan irakasleen profila oso konplexua baita. Irakasleak zentroei esleitzea oso zorrotza da eta gure erronka eskaera horri erantzun ona ematea da.

**–Irakasleen egonkortasunari eta kudeaketaren autonomiari dagokienez, aurrera egin dugula uste al duzu?**

– IKASLANek, hasiera-hasieratik, kalitatearen kudeaketarekin eta beste hainbat proiektu ezartzearekin lotura zuten hainbat lan ildo zituen. Zentro baten baitan, proiektu berri bati ekiten dioten bakoitzean, barne mailako hausnarketak egiten eta irakasleen rolak aldatzen dituzte. Proiektuen oinarria horiek aurrera ateratzen dituzten pertsonak dira eta gutxieneko egonkortasuna behar da horiek sustatzen dituztenentzat. Askotan, egonkortasuna eta malgutasuna kontrajarrita agertu ohi dira eta alderdi horiek orekatzeko lanean ari gara. Horrez gain, zuzendaritzako taldeen egonkortasuna ere oso garrantzitsua da, proiektuak trakzionatu behar baitituzte. Horrek, gainera, lotura du kudeaketaren autonomiarekin; proiektuetan elkarrekin lan egiten duten zentroen sareak dira inguruko eta zentroetako benetako egoera egokien ezagutzen dutenak.

**–Zer iruditzen zaizu esleipen zentralizatua lurralde bakarrean egitea?**

– Aurreko ikasturtean ezarri genuen hori eta positiboa izan da. Hiru lurraldetan egiteak kudeaketako eta koordinazioko arazoak sortzen zituen; urtero, mugitzen eta berriz diren baliabideen hornikuntza egiten dugu. Hori Bilbon egiteak zailtasun fisikoak eragin zitzakeen, baina bateratzea eta zentralizatzea pauso garrantzitsua izan zen.

**–Zein mezu bidaliko zenuke Lanbide Heziketaren etorkizunaren inguruan?**

– Beti ari da garatzen eta zikloen ezarpena berrikusten ari dira, horiek eskaini behar ditugun tokietan zikloak eskaintzerakoan asmatzeko. Lanbide Heziketa osasuntsu dago eta etorkizuna du Gipuzkoan; enpresek hori eskatzen dute. Ikasleak ditugu, eta gero eta gehiago izango ditugu gainera. Garrantzitsuena Lanbide Heziketa ona emateko prestatuta egotea da, enpresek eskatzen dutenera benetan egokituko dena. Gipuzkoan Lanbide Heziketaren alorrean lanean ari direnekin helburu hori erdietsiko dugula uste dut. Gainera, Lanbide Heziketak gazteen artean duen irudia hobetzea eta indartzea lortu dugu. Etorkizuneko beste erronka bat, gainera, immigrazioarekin sortuko zaigun eskaerari erantzuna ematea izango da. Gaur egun, haur ugari dago oinarrizko hezkuntzan eta askok aukeratuko dute Lanbide Heziketa.

**"Lanbide Heziketak etengabe egokitu behar du horren aldakorra den lan merkatura"**

**"La Formación Profesional tiene que estar continuamente adaptándose al cambiante mercado laboral"**



ligados con el mundo empresarial, con fuertes relaciones con la empresa. Por eso se han podido llegar a desarrollar todas las líneas estratégicas que se habían planteado.

**–¿Se adecuan los centros de Gipuzkoa a las necesidades del alumnado y del mercado laboral?**

–La Formación Profesional tiene que estar continuamente adaptándose al cambiante mercado laboral. Se realiza un esfuerzo enorme desde los centros por conocer la situación del mercado, por intentar adaptarse a las necesidades y por estar al día. Se está haciendo bien, pero es algo complicado, porque todo el esfuerzo de adecuación implica cambios dentro de los mismos centros. Si cambia el ciclo, dentro de una misma familia profesional, puede cambiar el perfil del profesor. Tiene que haber formación continua del profesorado, ya que están preparando alumnos para trabajar en empresas donde están ya implantadas esas novedades. El profesorado debe estar en la punta del avance tecnológico. Las direcciones de los centros también tienen que ser dinámicas, prever las necesidades que va a haber, el tipo de ciclos y profesorado.

**–¿Qué líneas de actuación se plantean en los próximos años desde la Delegación Territorial de Educación de Gipuzkoa en cuanto a la Formación Profesional?**

– Al hilo de lo anterior, la mayor dificultad desde la Delegación es atender a esta flexibilidad en lo relativo a la provisión de profesorado a los centros, porque hay determinados ciclos donde el perfil del profesorado es muy complejo. La adjudicación de profesores a los centros es muy exigente y nuestro reto es responder bien a esa demanda.

**–¿Cree que se ha avanzado en cuanto a la estabilidad del profesorado y la autonomía de gestión?**

– IKASLAN, desde sus inicios, tenía líneas de trabajo en cuanto a gestión de calidad y la implantación de otros muchos proyectos. Cada vez que se empieza un nuevo proyecto dentro de un centro se realizan reflexiones internas y se cambian roles del profesorado. Los proyectos están basados en las personas que los sacan adelante, y se requiere un mínimo de estabilidad para quienes lo impulsan. Muchas veces hay un choque entre estabilidad y flexibilidad, y estamos tratando de equilibrar estos aspectos. También es muy importante la estabilidad de los equipos directivos, que tienen que traccionar de los proyectos. Esto está unido también a la autonomía de gestión; son las redes de centros que trabajan juntos en proyectos las que mejor conocen la realidad que les rodea y la propia realidad de los centros.

**–¿Cómo valora el hecho de hacer la adjudicación centralizada en un único territorio?**

– Se implantó el curso pasado y ha sido positiva. El hecho de hacerlo en tres territorios causaba problemas de gestión, de coordinación; cada año se hace una provisión de recursos que se mueven y reocupan. El hecho de hacerlo en Bilbao pudo traer complicaciones físicas, pero fue un buen paso unificar y centralizar.

**–¿Qué mensaje lanzaría de cara al futuro de la Formación Profesional?**

– Siempre está en evolución, se está revisando la implantación de los ciclos, acertar a impartir los ciclos donde los tenemos que dar. La Formación Profesional tiene salud y futuro en Gipuzkoa; las empresas la demandan. Tenemos alumnos y vamos a tener cada vez más. Lo más importante es estar preparados para impartir una buena Formación Profesional, que se adecue realmente a lo que las empresas demandan. Creo que con la gente que está trabajando en Formación Profesional en Gipuzkoa, esto se va a conseguir. Además, se ha conseguido revitalizar y mejorar la imagen de la Formación Profesional de cara a los jóvenes. Un reto de futuro será también responder a la demanda que vamos a tener con la inmigración. Ahora mismo hay muchos niños en educación básica, y muchos optarán por la Formación Profesional.